



ESTOLDERIAREN ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASA

Estolderia sarera lotzeko lizentzia emakidari dagokion zerga kuota behin baino ez da ordainduko. Ordaindu beharreko zenbatekoa finkoa izango da:

KONTZEPTUA	EURO
Gehienez ere 10 etxebizitza badira	48,62€
11-15 etxebizitza	92,60€
15 etxebizitza baino gehiago	231,50€
Merkataritza lokalak	48,62€
Industria-pabilioi bakoitzeko, azalera < 400 m ² -koa bada	144,69€
Industria-pabilioi bakoitzeko, azalera > 400 m ² -koa bada	289,38€

Estolderia zerbitzua emateagatik ordaindu beharreko zerga kuota honako honen arabera ezarriko da: finkan erabilitako ur kantitatea, metro kubotan neurtuta. Horretarako, honako tarifa hau aplikatuko da:

KONTZEPTUA	EURO/m³
Etxebizitza	0,15€
Etxebizitza gisa soilik erabiltzen ez diren beste higiezin batzuk	0,15€

Horniduragatik faktura daitekeen gutxieneko ur kontsumoa baino txikiagorik ezin izango da kontuan hartu inondik ere. Kontsumo hori kontuan harturik ondorioztatzen den kuotari dagokionez, gutxieneko kuota eska daitekeena izango da, hau da, 15 m³ hiru hilez behin.